

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramoni Goikoetxea Maiza

*Donostia,
Gipuzkoa
(1920-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Zeraingo Hirukate baserrian jaioa, zortzi urterekin Donostiara joan zen bizitzera, Antiguako Loiztarain baserrira, Igaran. Aita Zeraingoa zuen, tratularia, eta ama ataundarra; hura San Martin plazara joaten zen zaldi-karroarekin, tratua saltzera. Umetatik ibili zen baserriko lanak egiten. Zortzi senide ziren. Zerainen hasi zen eskolan Ramoni, eta Antiguan jarraitu zuen: Amilibia eskolan ibili zen eta Mintegi ahizpekin ere bai. Josten ere ikasi zuen. Loiolako Lorentzoenea baserrira ezkondu zen (gaur egun Egia), eta sei seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-103

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-14
- **Iraupena:** 101 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

DON-104

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-15
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Jaio, Zerainen

- **Erref:** DON-103/002
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:00:22. **Bukatu:** 00:02:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zerainen jaio zen, Irugarate baserrian. Aita bertakoa zen, ama ataundarra. Zortzi urte arte bizi izan zen han. Zortzi senide ziren. Zaharrena jesuita zen. Nolatan joan ziren Donostiara, Loixtarain baserrira.

2. Loixtarain baserriko kontuak

- **Erref:** DON-103/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Santo Tomas lizeoa egin zuten baserriko lurretan. Hiru baserri zeuden inguru hartan. Bi bizitzakoa zen. Ganadua, baratzea... Aita tratularia zen. Osaba eta aitona itsua ere beraiekin bizi ziren. Aitonaren magalean.</p>

3. Erraz saltzen zen garaia

- **Erref:** DON-103/006
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:05:28. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

San Martingo plazara joaten zen ama, berdurarekin, zaldi-karroarekin. Gero bera eta ahizpa ere joaten ziren. Erraz saltzen zen. Berdurak aipatzen ditu. Esnea, bertan eta etzez etxe.

4. Lurra lantzeko tresnak

- **Erref:** DON-103/007
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Baratzeko kontuak. Artoa, babarrunak, letxuga, tomateak, piperrak. Baserriko tresnak. Ganaduaren lanak.</p>

5. Ganaduarentzat erremolatxa

- **Erref:** DON-103/009
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:10:41. **Bukatu:** 00:14:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ganaduaren jatena. Erremolatxa, negu guztirako. Hazitokiak: Jose Mari Elosegia eta Mokorooa. Erremolatxaren prozesua. Udazkenean jaso. Arbia, San Bartolometan. Simaurra oraingo ongarri minerala baino hobea dela dio.

6. Ilargiaren garrantzia

- **Erref:** DON-103/010
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ilbehera zen ala ez kontuan izaten zuten ereiteko. Arto taloak ogiaren ordeztu, gerra ostean. Errota ligan zegoen. Babarruna. Txerria hiltzen zuten urtero. Ardiak ere izaten zituzten; xexina azarekin.

7. Behi gazta egiten

- **Erref:** DON-103/011
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:20:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ardi banaka batzuk zituzten. Arkumeren bat hazteko. Behiaren esnearekin gazta egiten zuten. Gaztagintza. Prozesua. Gatzura txerrientzat. Hilabete edo, lehortzen. Zerain sagu herria dela esan du alabak.

8. Txorizoak egiten

- **Erref:** DON-103/013
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Txorizoak nola egiten zituzten. Haizea nola kendu. Baratxuriak.</p>

9. Txerrikiak eta txerrijana

- **Erref:** DON-103/014
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:28:02. **Bukatu:** 00:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Urdaiazpikoa. Solomoa. Manteka. Gibela albaitariari eraman. Txerrien jatena: txerrijana eta pentsua. Euskal Bilerara ere joaten zen, txerrijan bila.</p>

10. Amilibia eskoletan

- **Erref:** DON-103/015
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:29:46. **Bukatu:** 00:32:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eskolara Zerainen, eta gero ere bai Antiguán, Amilibia eskola publikoetara. Neska-mutilak aparte. Maistra: doña Demetria. Ordaindutako eskolara joan ziren gero, Mintegi ahizpengana. Erdaraz. Oraingo umeak.</p>

11. Goierriko eskolan, euskaraz

- **Erref:** DON-103/017
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:33:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Lehen ordenagailurik ez. Pizarrina. Liburuak. Katona. Goierrin, euskaraz. Antonio Garin maisua. Laboreak.

12. Tratua biltzen arratsaldean

- **Erref:** DON-103/018
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:33:53. **Bukatu:** 00:35:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

11-12 urte arte ibili zen eskolan. Gero, lanera. Arratsaldean, tratua biltzen karretilan. Lera. Dotrina Don Tomas Arteaga apaizarekin, euskaraz, parrokian.

13. Igandero mezara

- **Erref:** DON-103/019
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:38:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Igandero joaten ziren elizara. Ezkonduz gero, 06:30etako mezara joaten ziren frantziskotarretara Intxaurrendoko baserrietatik. Anekdotak. Alaba igande goizean jaio zen, San Antonio klinikan.

14. Etxean erditzen, medikuarekin

- **Erref:** DON-103/020
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:38:13. **Bukatu:** 00:41:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Etxeko jaiotzetan Almandoz medikua joaten zen Martutenetik. Aurretik zaldiz, Altzatik. Anekdotak. Etxean erditzeko prestaketarik ez dela behar dio. Indarra egin eta aurrera.

Transkripzioa

-Eta etxian, e... umia eukitzia zan normalena, orduan, hasieran, eta norbait etortzen zan? Komadronan bat o... laguntzera?

-Klaro, meikua!

-Medikua?

-Bai.

-Eta komadrone ere bai, ala... ?

-Ez, meikua. Bai.

-Alba: Almandoz.

-Almandoz medikua?

-Medikua, bai.

-Eta nola abixatzen zitzaion medikuari?

-Telefonotik. Guk ez gendun /ezkendun/, baiño hor, etxe hortan zan,

etxe, hortxen... ordun, telefonua.
 -Alaba: Zaldi gaiñian etortzen zan.
 -Geo, gero jarri gendun guk ere, baiño lenbiziko hortxe zan telefonua.
 -Eta nola, nundik etortzen zan medikua, Almanoz?
 -Martutenetik. Martutene.
 -Nola?
 -Kotxiakin.
 -Eta zaldiyan...
 -Ez, tasis, tasisian.
 -Eta zaldiyan ez zan...? Zaldiyan?
 -Ez, ez, zaldiyan lenokuak izango zian, horrengana, “donde mi marido”, ne gizonangana ta arrebana-ta zaldiz, Altzatik.
 -Altzatik?
 -Bai. Eta zaldiya uzten zun /uztentzun/ tokiyan, bate lotu gabe eta hantxe eoten omen zan /omentzan/ zaldiya.
 -A, bai?
 -Bai. Ta bate bat arrimatu da /arrimaua/: “Zaldiya, hoi libre zeok”. Jakin ez harek, zaldiya libre. “Ta alde ingo dik ba honek!”. Eta lokarriya o soka o ba omen zekan, eta arbolan bati lotzen eo zerbait hasi omen zan /omentzan/, eta han hastea zijoala etorri omen zitzaion zakurra! Zakurra ´re berekin euki.
 -Medikuak?
 -Bai ba! Ta zaldiya haren kontu, zakurra! Ta bestiak jakin ez.
 -Orduan zaldi azkarra, eta gaiñera, zakurra zaindari.
 -Zakurra, bai. Holaxen.
 -Eta lengo medikuak, eee... Hor, lengo... etxian haurra eukitzeko-ta, zertan, nola laguntzen zuten?
 -Nola laundu?
 -Bai, ze, ze in bihar da umia eukitzeko etxian? Ze jartzen zan? Ura...
 -Geo, izan ta /da/ geo, uretan garbitu! Urakin.
 -Eta aurretik, ezer ez?
 -Ez.
 -Indarra in ta /da/...
 -Indarra in ta /da/ “ya está”! Parto ona izan ezkerro, normala. Nik ondo, Jainkoai eskerrak, denak ondo izandu itut, bai.
 -Eta medikuak ze iten zun?
 -Haurra...
 -Zilbor-hestia...
 -Hestia lotu ta...
 -Lotu...
 -Bai ba, ta txukundu ta garbitu ta... dena.
 -Eta haurrai ze iten zitzaion ondo etorri...
 -Garbitu, eta geo jantzi.
 -Alaba: Bildu, beruan...
 -Beruan, toallan o lenbizi bildu, ta geo garbitu.
 -Eta garbitu, ur epelakin?
 -Ur epelakin geo poliki garbitu eta... jantzi. Nik neonek ez det in. Nei bestiak in diate.
 -Alaba: Komadronak.
 -Bueno, komadrona... Luisa zitten hemengo komadrona. Hor bizi zan emakume... oso salada. Gaixua hil zan /hiltzan/. Etxe hortan.
 -Alaba: bizilaguna.
 -Eta ze...
 -Hua etxeko bezela ibiltzen zan.
 -A, eta etortzen zan laguntzera...
 -Bai. Ta batzan launtzea etortzen zan ta geo holako laneta ´re bai. Harek,

harek in zizkian denak.

-Eta orduan umia ikusteko ondo... itsua dan, ez dan... eta iten zan zerbait? Kandelarik jarri begi aurrian edo holako...?

-Ez, ez. Ez.

-Eta negar, negar itia umiak? Ipurdiyan jo eta holakorik?

-Ez, ez, ez. Berez...

-Medikuak ez zun... ez zitun iten proba batzuk ikusteko umia ondo zeon ala...?

-Ez, geroa hori.

-Geroa?

-Hoi geroa, jungo giñen nik uste det /ustet/, anbulatoiyoa o ez takit noa juten giñan.

15. Jaioberriaren janzkerak eta bataioa

- **Erref:** DON-103/022
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:42:00. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Faja batean biltzen zen jaioberria. Troza, benda luzea gerrian. Mantoia. Oilo salda. Bataioa, segituan badaezpada. Ama eta aita pontekoak.</p>

16. Elizan sartzea

- **Erref:** DON-103/024
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:45:28. **Bukatu:** 00:47:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Etxean bazkaria egiten zen, bataio egunean. Elizan sartzea egin aurretik ezin zen etxetik irten emakumea. Atsolorrak, batez ere Goierriin.</p>

17. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-103/026
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Umetako jolasak: kanikak, tabak, gordeka. Sokasaltoak, txingoak. Eskola aurrean. Zaldi gainean joaten zen Lierni ermita ondoko belardira. Arbolara igota, piku biltzen. Bretxara joaten zen saltzera, gerra ostean.

18. Itsasoa bainatzeko ohiturarik ez

- **Erref:** DON-103/028
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:50:28. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Umetako bainuak. Inoiz ez da itsasoa bainatu. Errekarik ez zuten inguruan. Argia beti izan zuten. Arropa. Ura.

Transkripzioa

-Eta han e... umetan ta /da/ baiñatu-ta iten ziñaten? Hondartzara-eta juten ziñaten ala errekarala...

-Nere denboran ez naiz jun itsasoa. Bueno, Ondarreta jun naiz, baiño...

-Alaba: Hankak busti're bai.

-Hankak bustitzen ta bai ibili naiz, baiño ez naiz baiñatu.

-Ez, e?

-Ez.

-Eta zergatik ba hori?

-Ez detelako zeatzen. Ohiturik ez eo. Ez takit ba nik zer gendun.

-Eta errekan ere ez?

-Ez, errekaik ez gendun han. Goierrian ez naiz goatzen errekaik.

-Alabak: hemen, hemen.

-Eta gero, Antigua?

-Antigua ez gendun errekaik.

-Ez?

-Erreka, Ixtinga; zuluak-edo, erribera zuluak bai baiño... hola errekaik ez.

-Eta zuek han, e, Antigua baserriyan beti euki zenuten argiya eta ura?

-Bai.

-Eta erropa garbitzeko-ta gobara...

-Eskuz.

-Eskuz?

-Alaba: Ura nun?

-Ura? Beno, ura iturriyan han, ur... etxian ez, baiño etxetikan hola distantzi pixkatea ura.

19. Kanilako ura eta komuna

- **Erref:** DON-103/030
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:51:48. **Bukatu:** 00:53:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Kanilako ura noiz jarri zuen anaiak, bera ezkondu ondoren. Iturrira kalderarekin, ur bila. Komuna nolakoa zen.

Transkripzioa

-Orduan, kanilleko, kanillako urik ez zenuten.
-Kanilleko urik ez, ez, ez. Ez, geroa, gero bai.
-Nora...?
-Geroa, oain dala urte batzuk, ni ezkondu ta handik geroa anaiyak...
Igeldon barrena o ekarri zun ura etxea. Bai.
-Aaaaa. Eta orduan zu umia ziñala-ta, iturrira. Eta nora jutun ziñaten ur billa?
-Kalderakin. Bai ba. Kalderakin.
-Eta ur billa, janariya prestatzeko, garbitzeko...
-Daneako.
-Daneako?
-Deneako. Komuneako... Deneako.
-Eta komuna Nolakua zan?
-Behiyakin ta /da/ denakin.
-Komuna nolakua zan?
-Komuna? Eseri-alkiya bagendun ta, bere atiakin. Ate txikiyakin ta /da/ iña zan, ta zea zun: goitikan behiyan...
-Alaba: simaur pillá.
-Simaur pillá ez, pixa zulua. Ta txuxen hara jutun zan.
-Ikuilura jutun zan.
-Ikuillua, ikuillua, bai.
-Eta ze zekan, tapa edo...?
-E?
-Ze zan, egurrezkua, kumuna?
-Egurrezkua.
-Eta bazekan...
-Egurrezkua ez. Atia bai, baiña bea ez. Holakua zan.
-Holakua ?
-Bai, Roca, be tapakin.

20. Mendiko zuloa gordeleku eta hozkailu

- **Erref:** DON-103/033
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:53:51. **Bukatu:** 00:55:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Hozkailurik ez zuten, baina zulo batean sartzen zuten janaria. Gerra denboran, Cervera ontziaren bonbak. Zuloa egin zuten mendian, ezkutatzeko.

Transkripzioa

-Periodikoik´e ez gendun.
-Alaba: Baiña iturri onduan...
- Iturri onduan in zuten, gue gerra denboran, bakizu... Gerra denboran ze... ze zea zan. Zuk, ez zea /etzea/ zeatuko, baiño... Cervera esaten zitzaion

barku haundi bat, ikaragarritzko kaiñonazuak botatzen zitun. Urrutitik, e. Hemen isla baiño han, e, urrutiyotikan, e! Ta gue etxea bakizu nun zan Igara zea... nun esaten dizuten?

-Bai, eta haraiño?

-Haraiño? Añorgaiño´re bai!

-A bai, e?

-Bai. Eta han botatzen zituen, ta ba: "Hauxe dek, hauxe!". Halakon batian hemen sartuko zaigu eta... gue anaiyak eta osabak eta, sasoikuak eta... ba al dakizu ze in zuten /intzuten/? "En un montibulo" o nola esaten da /esatea/? Zea, mendi... mendi ze batian zulua in zuten. Tunela bezela in zuten /intzuten/. Lurra kendu, ta zulua.

-Bai. Hor ezkutatzeke?

-Han, hara jutun giñan. "Oaintxe... hasi dek ba oiañ´e, eta guazemak!". Jutun giñan ta hua zan oso toki freskua. Ta udara partian "pues" esniak hara eamaten giñuzen.

-Aaaa... Orduan hori zan zuen frigorifikua, gero?

-Hua zan gue frigorifikua.

-Freskera?

-Bai. Ta zea... Cervera etortzen zanian´e hua zan gue gordelekua.

-Gordelekua?

-Bai.

21. Anaia hil zitzaion gerran

- **Erref:** DON-103/035
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:55:41. **Bukatu:** 00:58:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra hasi zenean, zazpi senide ziren, eta soldadu joatea tokatu zitzaien bi anaiari. Senarra ere gerran ibili zen. Anaia gerran hil zitzaion, 23 urterekin, Castellón. Igarako baserri ia denetan hil zen mutilen bat. Kintak. Beste anaia txofer ibili zen.

Transkripzioa

-Gerra hasi zanian, "pues"... tristura galanta!

-Nola akordatzen zea gerra hasi zala ta... nola, nola jakin zenuten?

-Ez takit pa nik nola. Nola, nola, nola... nola esan´e ez dakit. "Lo único"... hoixen, giñan zortzi senide. Zazpi senide izango giñan etxian, eta soldadu tokatu zitzaiyoten bi anaiyei. Soldadu jun zian /juntzian/.

-Gerra garaiyan?

-Gerran, gerraa, bai. Ta gizona, bestia.

-Orduan, nazionalekin.

-Bai. Bestia, gizona, oain... gizona difuntua nuna. Baiño bi anaiyak. Ta bat hil zitzaigun han, gerran. Hogeita hiru urtekin mutill bikaiñ askua. Geo, ezta baserrik bat bakarrik Igara barriyua da, e. Igara... Monte Igeldotik han haruntzaldeko barranka, Usurbil aldeko barranka hoi... hor baserri granoik ez da /ezta/ ia mutil bat hil ez zen /etzen/ baserririk. Askotan kontatzen aitzen giñan: ta hau ta hua ta... Hura, hau ta...

-Orduan, kintak... Kintak harrapatuta, orduan?

-Bai, kintak o kintaik gabe o... Kinta asko zien, e. "Del treinta y... seis al

veintinueve!” zan. Zarrena “veintinueve”-kua zan, ta aber. Sei urteko kintuak harrapatu zituzten.

-Eta nun, nun hil zan anai hori?

-“Castellón”.

-“Castellón”?

-“Con veintitres años”.

-Eta bestia? Nundik ibili zan?

-Bestia...

-Elkarrekin ibili ziran ala...?

-Ez. Txofer ibili zan.

-Txofer?

-Bai. Arrixku haundiyak ibili omen zitun, baiño... Txofer ibilli zan. Ta oandikan goatzen naiz difuntuak etxea etorri, bakaziyuakin ta /da/, gripekin o neon ni, ohiyian ta /da/: «Ai, Ramona, banian! Nahiko niñan nik ere... - Agustiñ zan bestia, txofer ibili zana- Austiñek bezela txofertza ikasi izan banu nik ere. Nahiko niñen! Ni ere ibilliko nitzenan...». Oaiñ, retaguardia esaten zitzaion... «Ibilliko nitzenan»...

-Klaro...

- ...esan zin, bere penakin, eta oaindikan oaintxe esan balia bezelaxe goguan dakat, e. Oaintxe esan balia be... esan bazian bezelaxe goguan dakat.

22. Fusilamenduak eta sirenak

- **Erref:** DON-103/036
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:58:12. **Bukatu:** 01:00:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Jende asko joan zen Frantziara. Fusilamenduak. Sirena jotzen zuten, eta sotoetan ezkutatu behar.

Transkripzioa

-Eta jende asko jun zan ihesi-eta, gerra hasi zanian?

-Bai. Frantzia asko jun zian. Gue aldetik ni ez naiz goatzen iñor jun zenik baiño... Barkukak uste det /ustet/ jun ziela /juntziela/ Pasaiatik-eta, kargatuta. Itzuli.

-Eta gerra... ze giro zeon ta /da/... gerra garai hortan? Zuk... Cervera barkuan kaiñonazuak-eta bai, baiña bestela, ez dakit e... atxiloketarik egon zan?

-Ez, e.

-Fusilamendurik?

-A, fusilamentuak bai. Asko esaten dute fusilamentuk. Guk ez gendun /ezkendun/... nik ez naiz goatzen iñor hola... baiño bai, hor, zean...

-Entzuten ziran, orduan.

-Bai. Hor...

-Kartzela ere bazeon Ondarretan.

-Bai. Ondarretan kartzela, eta hor... etxoin, nola da? Añorga. Añorgan nola da? Txillida! Txillidan tokiya oain!

-Bai.

-Hor nunbaite egon bihar zun /bihartzun/, horrea eamaten omen zituzten ta

/da/ hor afusilatu, jendia.
 -Orduan, bildurra, bildurra eongo zan...
 -Bai, betire. Baiño afusilatu nik ez dakit zergatikan, zea bat alde batekua ta bestia bestekua o... Zerk. Hor biñik pin esaten zuten zeola "como un cementerio que había ahí".
 -Eta zuek jarraitu zenuten lanian, normal.
 -Guk bai. "Lo único"...
 -Tratuakin juten saltzera-ta?
 -Bai.
 -Ez zan eon aldaketarik hor gerra garaiyan ala bai, egon ziñaten etxian sartuta eta...?
 -Ahal, ahal gendun bezela! Goizian korrika jun ta lanak ein ta /da/ etxea etorri korrika! Geo, beste batzutan goatzen naiz Donostiyan e sirena jotzen zuten. Jendia gordetzeko. Ta bodegata-ta jendia, korrika, jundakoa goatzen naiz.
 -Han, kalia...
 -Kalia tokatuta, bai. Bai. Tristia zen gerra denbora.

23. Arropa garbitzen, iturrian

- **Erref:** DON-103/038
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:00:34. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Iturrian aska zuten arropa garbitzeko, baina lehorte egiten zen. Tuberia batetik hartzen zuten, orduan. Egurrezko mahaian eman xaboa. Maindireak beratzen, ur beroarekin. Ekonomia beti.

24. Sukaldea eta otorduak

- **Erref:** DON-103/040
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:02:40. **Bukatu:** 01:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ahizpa zaharrena ibiltzen zen sukaldean. Eltzea. Txorakeria gabe. Bakoitzak bere platera. Eguneko otorduak. Hamaiketakoa.

25. Etxeko jira

- **Erref:** DON-103/043
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:05:16. **Bukatu:** 01:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ilunduta ere lana izaten zen: arropak konpondu, galtzerdiak josi... Lo nola egiten zuten. Hiru ahizpa bi ohetan. Sei logela zituzten.

Transkripzioa

-Ez, illunduta 'e lana izaten zan.
-A, bai? Ze lan?
-Errapa plegatu o, erropa konpondu o... O botoin batzuk jaso ta... Geo oain bezela kaltzetiñak ez zian /etzian/ gaiñea; puskatutzen errexaguak o ez takit zer zian /zertzian/ ordun. Ordun haik zurtzitzen, kaltzetin zurtzitzen aitzen giñan, jesuuuus. Hoi goatzen naiz oaindikan.
-Klaro, asko ziñeten.
-Bai ba, asko ta geo... Puskatu, berriz, e, aixa iten da /itea/! Zan, ordun. Bai.
-Eta hori izaten... hori illunetan ere... ze, argiyakin? Kandlekin ala...?
-Eeez.
-Bazeon argiya, ona?
-Argiya bagendun, bai. Bagendun, bai. Bai.
-Orduan berandu arte lanian.
-Bai.
-Eta lo-ta nola iten zenuten? E... logela bakoitzian zenbat lagun?
-Hiru ahizpa eoten giñan bi ohiyetan, kuarto batian. Geo matrimoniyua, aita ta ama, bestian, osaba beste kuarto batian ta geo anai zarrena etxian izaten gendun, hura bestian... holaxe.
-Alaba: Patxi.
-Patxi're bai. Bestia... zenbat kuarto giñuzen han? Sei o ez takit zer giñuzen... Bat, bi, alkoba, lau, bost... sei kuarto...
-Orduan haundiya zan.
-Bai.

26. Estraperloa eta errazionamendua

- **Erref:** DON-103/045
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:07:03. **Bukatu:** 01:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperlistak. Azukrea, olio. Ogia. Errazionamenduko ogia, txarra. Babarruna entregatu behar udaletxean.

27. Josten ikasi zuen Antiguan

- **Erref:** DON-103/046
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:08:40. **Bukatu:** 01:10:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Antiguan ibili zen josten, bi ahizparekin. Zamora familiakoak. Patroiak. Etixerako.

28. 16 urterako, nobiotan

- **Erref:** DON-103/047
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 01:10:03. **Bukatu:** 01:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Gaztetako aisialdia. Igandetan lagunak irteten ziren. 16 urterako hasi zen mutilarekin; biak zaldi-karroan joaten ziren plazara. Gero soldadu eraman zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta, gaztetan denbora libria eukitzen zenun, denborarik dantzara juteko-edo?

-A igandian? ez dakit ba ze esango dizuten ta nola esango dizuten, ba ateatzen giñen lagunak, baiño hamasei urterako hasi nintzen honekin.

-A bai, orduan nun baiten ezautu zenun?

-Bai

-Nun ezautu zenun?

-Donostiyan, bera zaldi karruakin etortzen zan eta ni ere zaldi karruakin etortzen nitzan eta biyok ezautu giñan.

-Gero, gerra eraman zuten, ta zenbat urte in zitun /intzitun/ gerran? “desde el treinta y seis. Treinta y seisen orduntxen kuartelea sartu zan, “de quintos”.

29. Senarra oso dantzazalea

- **Erref:** DON-103/051
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:13:07. **Bukatu:** 01:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ez da dantzazalea izan; senarra bai. Piezak entzuten zituzten irratan, eta ama-semeak dantzan aritzen ziren.

30. Erramua eta ur bedeinkatua

- **Erref:** DON-103/055
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:17:21. **Bukatu:** 01:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Erramua eta ur bedeinkatua etxean. Arrosarioa, iluntzean.

31. Sendabelarrak

- **Erref:** DON-103/057
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:19:32. **Bukatu:** 01:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Etxeko garbitasuna. Erratzak. Menda-belarra, usaina emateko. Sendabelarrak. Berbena, zaingorria, pasmo belarra. Ukendua nola egiten den.</p>

32. Berbena enplastoak

- **Erref:** DON-103/060
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:21:50. **Bukatu:** 01:23:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Berbena enplastoak nola egiten diren. Arrautza zuringoa. Pasmu belarra edan egiten da. Arnika belarra.

33. Zaingorria eta osina

- **Erref:** DON-103/062
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:24:20. **Bukatu:** 01:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Zaingorriaren ura, odola garbitzeko. Lore gorria du. Osinak ozpelentzat onak dira, egosita.

34. Lehengo soinekoak eta orrazkerak

- **Erref:** DON-103/065

- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:28:09. **Bukatu:** 01:31:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Benta Berriko autobus linea. Jostunarengana joaten ziren, Parte Zaharrean: Zeledonia. Modako soinekoak, luzeak. Orrazkera. Makilajerik ez. Takoi akluko oinetakoak. Kalerako eta lanera ezberdin jantzita. Nobioarekin Igeldora.</p>

35. Karta jokorako zaletasuna

- **Erref:** DON-103/067
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:31:39. **Bukatu:** 01:32:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Karta jokoan ibiltzen ziren. Aita haserretu egiten zen ez bazuen irabazten. Alabak ere hori egiten ei du. Jokoak: musa, tutea, punttua, 31.</p>

36. Sagardoa etxerako

- **Erref:** DON-103/069
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:33:05. **Bukatu:** 01:34:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagardotegiak. Etxerako egiten zuten sagardoa. Dolarea ere bazuten. Sagarra azkar biltzen da "kiskilla"rekin. Etxean, beti euskaraz.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com